

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak eta Udalak adinekoentzako errentako 32 etxebizitza dituen blokea sustatu dute Azpilagaña auzoan

Miguel Laparra lehendakariordeak eta Joseba Asiron alkateak zahartzearen erronkei etxebizitzaren arloko erantzuna emateko zurez eraiki eta auzoan integraturiko Passivhaus eraikin batean gauzatu den 'Zure-tokia proiektua' aurkeztu dute

Ostirala, 2019.eko otsailak 22

Eskubide Sozietako lehendakariorde Miguel Laparrak eta Iruñeko alkate Joseba Asironek elkarrekin aurkeztu dute gaur goizean [Zure-tokia proiektua](#) ('zurezko tokia' eta 'zure tokia', aldi berean), 65 urtetik gorako adinekoei zuzendutako tutoretzapeko errentako 32 apartamentu dituen blokearen sustapen publikoa, Iruñeko integraturikoa.



Ikus argazki oina informazioaren bukaeran.

Azpilagaña auzoko hiri-ingurunean

Bi erakunde publikoaren arteko lankidetzak da esperientzia pilotu honen bereizgarri nagusia, izan ere, Nafarroako Gobernua inbertsioaz arduratu da eta Udala zorua jartzeaz. Ekimen hau etxebizitza eskuragarriko formula berrien aldeko izaera sozialeko planteamenduaren ondorioz sortua da, zahartze aktiboaren errealitate eta beharren harira sortzen ari diren erronka arkitektonikoei erantzuteko.

Apartamentuak erabat irisgarriak eta moldagarriak izanen dira, eta logela bat edo bi izango dituzte errenteroen behar eta inguruabarren arabera, baina oroz gain, ez dira bizitoki-multzo periferikoak izango, izan ere, adineko pertsonak auzo baten bizimoduan integratuta geldituko dira, hiri-sarearen barnean, herritar guztien esparruak eta zerbitzuak partekatuz.

Halaber, zuzkidurazko apartamentu-bloke horretan, eraikuntza iraunkorrari dagozkion garrantzi handiko faktore berritzaileak txertatu dira; hala nola, Passivhaus estandarraren arabera eraikitzea –haxe da la Kontsumori Gabeko Eraikinen (ECCN) energia-eraginkortasunari buruzko estandarrik zorrotzena-, zurez egitea –egitura nahiz itxiturak- edota eraikuntzaren diseinuan, obraren zuzendaritzan nahi geroko mantentze-lanetan Building Information Modeling (BIM) metodologia aplikatzea, honetaz baliatzen den lehendabiziko sustapen publikoa izanik.

Energia berriztagarrien arloan erabilitako berrikuntzei dagokienez, *Zure-tokia* eraikina biomasaz baliatuko da berokuntzarako –energia elektrikoa eta termikoa uztartuz- eta *Plug&Play* deritzon sabai fotovoltaikoa izanen du, baita energia biltergiratzeko sistema berritzaile bat ere: Iruñeko *Smart Community*ko STARDUST proiektu europarrari atxikitako soluzio industrializatu bat.

Zahartze aktiboa hiri-ingurunean

Nasuvinsa etxebizitza arloko sozietate publikoa arduratu da *Zure-tokia* ekimenaren arkitektura-proiektuaz, sustapenez eta inbertsioaz, eta Iruñeko Udalak Alzania ibaiaren kaleko 18an, Azpilagañako Manuel Turrillas plazaren parean kokaturiko udal titulartasuneko zuzkidurazko lursail bat zesioan emateko hartutako erabakiari esker, hiri-ingurunean finkatu ahal izan da.

Horri esker, apartamentu hauek alokatzen dituzten adinekoek ez dute periferiako etxebizitza-multzoetara joan beharrik izango eta auzoko bizimoduan eta gizarte-harremanetan integratzen ahalko dira, zerbitzuetara, partekaturiko esparru publikoetara edota gertuko saltokietara bat-bateko sarbidea izateak dakartzan abantailekin, zahartze aktiboa sustatzeko moduko inguruneak sustatzea xede duten programen garrantzizko beste hainbat alderdiren artean.

Horrela, etxebizitza horien geroko alokairuaren kudeaketan, Nasuvinsako teknikariek Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintza Arloko udal zerbitzuekin, Auzoko Unitatea gisako baliabideekin eta auzoko zein gizarte eta kultura arloetako elkarteekin lankidetzan estuan lan egitea aurreikusit da.

Laparra lehendakariordeak eta Asiron alkateak nabarmendu dutenez, Iruñean herritarren parte-hartzeari, bizikidetzari eta ahalduz ere irekitako gizarte-baliabideak, zerbitzuak eta esparruak sortzen jarraitzea da proiektu honen bitartez lortu nahi den helburu nagusia, adinekoei hiriko bizimoduan eta inguru sozialean integratuta jarraitzeko aukera eskainiz.

Nasuvinsako arkitektoek egikaritze-proiektua idazten bukatu bezain laster, sozietate publikoa arduratuko da eraikuntza lanen lizitazioa irekitzeaz, eta ondoren, apartamentuen alokairu babestua prezio merkeetan kudeatuko du, eraikinean egindako inbertsioa errenta horien bitartez amortizatuko.

Bestalde, eraikinak, kota desberdinen arteko desnibelaren ondorioz azalera desberdinak dituzten beheko bi solairuetako esparru batzuk emanen dizkio Iruñeko Udalarari zerbitzuetarako erabil ditzan; zehazkiago esanda, 280 metro koadroko jubiloteka bat eta 265 metro koadroko zentro komunitarioa sortzeko.

Ultzama Campusaren ekarpena

Eraikinaren diseinuan erabilitako metodologiari dagokionez, proiektuak aintzat hartu ditu Ultzama Campuseko lan-taldeetan sorturiko ekarpenak eta gogoetak. Nasuvinsak eta Arkitektura eta Gizarte Fundazioak bultzaturiko arkitekturako karrera amaierako eta gradu ondoko ikasleentzako udako eskola honen bi edizio egin dira orain arte, zahartzearen erronkei eta adineko pertsonen egiazko eskakizunei erantzun dieten arkitektura eta etxebizitza mota berriak esploratu eta eskaintzeko xedez. Zehazkiago esanda, 2016ko udako edizioan, Eduardo Souto de Moura arkitekto portugaldarra buru zuen lan-taldeak *Zure-tokia* proiekturako oinarritzat erabili den Azpilagañako lursail honetarako aurreproiektuaren zirriborroa landu zuen.

Horren harira, planean aurreikusita dagoenez, eraikitako apartamentuak erabat irisgarriak eta moldagarriak izanen dira, eta gela bat edo bi izan ahalko dituzte errenteroen behar eta inguruabarren arabera. Halaber, eraikineko esparru komunak artean, elkarte gastronomikoaren antzera funtzionatuko duen txoko bat ere sortuko da bizikidetzan sustatzeko, baita psikomotrizitatea lantzeko eta jarduerak antolatzeko gelak eta jubiloteka ere, besteak beste.

ARGAZKI OINA: ezkerretik eskuinera, Hiri Bizigarri eta Etxebizitza arloko zinegotzi ordezkari Joxe Abaurrea, Nasuvinsa enpresa publikoko zuzendari kudeatzaile José María Aierdi, Iruñeko alkate Joseba Asiron, Eskubide Sozietateko lehendakariorde Miguel Laparra eta Giza-Ekintza eta Komunitate Garapenerako zinegotzi ordezkari Esther Cremaes.